

ZAILTASUNAK DITUZTEN NERABEEN PARTE HARTZEA. JARDUERARAKO 100 PROPOSAMEN

A
Z
T
E
A
R
E
N

G
A
I
A
K



© Jesus Otaño Maiza

© GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA
Giza Eskubideetarako, Enplegurako eta
Gizarteratzeko Departamentua
Haurren, Gazteen eta Garapenerako
Lankidetzaren Zerbitzua

1. argitarapena, 2006

OHARRA: Debebatua dago
honen edukia
gutziz edota zatika
erreproduzitzea,
jatorrizko iturriaren
aipamenik gabe.

Diseinu

Grafikoa: ■ TYPO 90
comunicación & multimedia

Maketazioa: eragin.com

Imprimaketa: Michelena Artes Gráficas

I.S.B.N.: 84 - 7907 - 513 - 9
Lege Gordailua: SS - 487/06



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

Giza Eskubideetarako, Enplegurako eta Gizarteratzeko Departamentua
Departamento para los Derechos Humanos, el Empleo y la Inserción Social

Giza Eskubideak Derechos Humanos



ZAILTASUNAK
DITUZTEN NERABEEN
PARTE HARTZEA.
JARDUERARAKO
100 PROPOSAMEN



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

Giza Eskubideak, Enplegarako eta Gizarte-zerbitzuak Departamentua
Departamento para los Derechos Humanos, el Empleo y la Inserción Social

Giza Eskubideak Derechos Humanos



ZAILTASUNAK DITUZTEN NERABEEN PARTE HARTZEA. JARDUERARAKO 100 PROPOSAMEN

Dokumentu hau Gipuzkoako Foru Aldundiaren Giza Eskubideetarako, Enplegurako eta Gizarteratzeko Departamentuko Haurren, Gazteen eta Garapenerako Lankidetzaren Zerbitzuak egindako enkarguaren ondorioz sortu da.

Helburua du udaletako gazte ekipamenduei hausnartzeko tresnak proposatzea eta horiez hornitzea, gizarte eta heziketako programak garatzeko, prebentzioa eta zailtasun handienak dituzten nerabeak gizarteratzea oinarri hartuta –prebentzioa eta gizarteratzea gizarte edo/eta kultur alorrekoak izanda–, nerabeek programa horietan parte har dezaten.

Azalduko ditugun edukietan aditzera emango dugun bezala, ekipamendua zeharkakotasunaren ikuspegitik ulertzen dugu, eta baita nerabe guztientzat programak garatzeko eraiki behar den inguruaren ikuspegitik ere; era horretan, ekipamendua erabil dezaketen guztien errealitateetara egokitu ahal izango da.

Diskurtsoa 12 urtetik 17 urtera bitarteko nerabeen ingurukoei zuzendua da, eta udalerrietako ekipamenduen gertutasunaren eta lurraldetasunaren ikuspegia du.

Edukiak 100 proposamenen bidez azalduko ditugu eta, aldi berean eta era osagarrian, zortzi multzo handitan sartu ditugu; zortzi multzo horiek gure ustetan beharrezkoak dira gizarte eta heziketako programak garatzeko. Hauek dira aipatutako multzoak.

1. Gizarte eta heziketako beste gune batzuetan eskaintzen dena konpentsatzearen eta osatzearen ikuspegia, prebentiboagoa, gizarteratzaileagoa, komunitarioagoa. **6 or.**
2. **Behar** guztiak –behar orokorrak, taldeen eta parte-hartzaile bakoitzaren beharrak, eta zerbitzua duen komunitatearen beharrak– behar bezala ezagutzea, behar horiei, eta ez bakarrik eskaerei, erantzuteko. **9 or.**
3. **Askatasuna** eta **erraztasuna** ahalbidetzen dituzten **guneak**, nerabeen partaidetza sustatzen dutenak, sortzea. **12 or.**
4. Arreta berariaz heziketakoa izatea eta, beraz, etengabea, egonkorra eta zuzenekoa, eraikuntza pertsonalean aurrerapena eta nerabeen garapen soziala ekartzen dituena. **14 or.**
5. **Heziketa-harremana** gizarte eta heziketako esku-hartzean funtsezko tresna gisa erabiltzea. **17 or.**
6. Nerabeekin **heziketako prozesuak** aktibatzea, gizarte eta heziketako esku-hartzea eratzeko. **19 or.**
7. Nerabeen ardura duten gizarte eta heziketako eragileen arteko diziplinartekotasunean sakontzea, eta horretarako **koordinatzeko sistema** iraunkorrak ezartzea. **21 or.**
8. Gizarte eta heziketako esku-hartzearen **plangintza** egitea, parte hartzen duten nerabe guztien eta bakoitzaren beharrei erantzungo zaiela bermatzeko. **24 or.**

1 Gizarte eta heziketako beste gune batzuetan eskaintzen dena konpentsatzearen eta osatzearen ikuspegia, prebentiboagoa, gizarteratzaileagoa, komunitarioagoa

Komunitarioa denak berekin dakar gure zerbitzuaren eta komunitatearen arteko elkarlotura egoteko bidea finkatzea. Eta komunitatea lurraldean bizi diren pertsonen osatzen dute, baina baita erakunde, elkarte, baliabide eta zerbitzuek ere.


Ekipamenduaren ateak irekitzeak esan nahi du, alde batetik, gure zerbitzuaren lurralde-dimentsioa garatzea, gertuko ekipamendua delako; eta bestetik, komunitatearen beraren eraikuntzan laguntzea, eta nerabeei ere protagonisten egitekoa ematea.

Esan daiteke komunitatea gizarte eta heziketako gure zereginaren azken hartzailea dela, eta helburua dela komunitateari bere dinamikan eta garapenean beriz ere protagonista izaten uztea.

1. Ekipamendua, definizioz, **gizarte eta heziketako** ekipamendua eta **komunitateko** ekipamendua dela ulertu behar da.
2. **Inguru funtsezko elementutzat** hartu behar dugu eta, horrela, ingurumen, gizarte eta kultur baldintzek, hein handian, nortasuna eta bizitzaren berezko gozamena –neurri handiagoan edo txikiagoan erabatekoa izan daitekeena– zehazten dutela ere ulertu behar dugu.

3. Eguneroko bizitzaren eta gizartekotzearen **oinarrizko inguruak** nabarmendu behar dira eta, horiekin batera, baita nortasunaren eraikuntza ere.
4. Lana **heziketako erantzukidetasunerantz** bideratu behar da; nerabeak “nor-baitenak” baldin badira, gizartearenak berarenak dira, eta gizartea errealitatean komunitatea da; hau da, lurralde jakin bateko, auzo jakin bateko eta abarrek kideak.
5. Gizarte eta heziketako esku-hartzea **diziplinarteko ikuspegitik** ulertu behar dugu.
6. Gizarte eta heziketako espaziotik nerabeek parte hartzen duten beste gune eta inguru batzuk **konpentsatu** behar dira, askotan ez baitira nerabeen beharren arabekoak izaten.
7. Gure esku-hartzearen bidez, nerabeek parte hartzen duten heziketako beste gune batzuetako lana **osatu** behar da.
8. Kontuan hartu behar dugu gizarte eta heziketako espazioan parte hartzeak nerabeengan zailtasunak sortzen dituela, eta behin zailtasunak gainditu direnean, espazio bat antolatu behar dela, nerabe guztiak **eroso egoteko eta jaramon egiten zaiela** sentitzeko.
9. Gure ekintzak multzo eta taldeei zuzenduta egon behar du, eta kontuan hartu bertan zailtasunak dituzten nahiz zailtasunik ez duten gizabanakoek parte hartuko dutela.
10. **Partaidetza-estiloa** sustatu behar da, komunitateak eta nerabeek komunitatean parte hartzean oinarrituta.
11. Lan konpentsatzailea eta komunitarioa **plan, programa eta proiektuetan** gauzatu behar da.
12. Zailtasun handiak dituztelako **behar handiena duten** nerabeek espazioan **parte hartzea erraztu eta sustatu** behar da.
13. Komunitatean eta lurraldeko herritar guztien artean ekipamendua ezaguna izateko **komunikazio-bideak** finkatu behar dira.

14. **Nerabeen familiak** solaskideak direla ulertu behar da, nerabeen aurrerapen pertsonaletan erantzukizuna partekatua izan dadin.
15. Departamentu egokiagoetan parte-hartzaileek izan litzaketen zailtasunak **bi-deratzeko edo/eta ezagutarazteko** formulak ezagutu behar dira.
16. Gazteri zerbitzuen eta gizarte eta komunitateko zerbitzuen artean trukutzen den **informazioa kudeatzeko** sistema bat eratu behar da.



2 Behar guztiak –behar orokorrak, taldeen eta parte-hartzaile bakoitzaren beharrak, eta zerbitzua duen komunitatearen beharrak– behar bezala ezagutzea, behar horiei, eta ez bakarrik eskaerei, erantzuteko

Egungo gizartearen eta heziketaren eredua, nerabeei gagozkiola, helduen ikuspegitik eratutako eredua da, eta nerabeak ulertzen ditu, oro har, eskaintzen zaienaren edukitzaile huts gisa: alegia, oso zalantzagarria den etorkizunari begira, gaitasunen eta baliabideen edukitzaile gisa eta, halaber, babesaren eta beren garapenerako oinarritzko beharren zuzkiduren edukitzaile gisa. Gehiegitan, ereduak ez du kontuan hartzen dena izan daitekeela heziketakoa, bai intenzionala dena zein formala dena, bai komunikabideek, merkatuak, kontsumoak eta abarrek transmititzen dutena, eta horrek nerabeengan eragin handia sortzen duela.

Eredu horiek hainbat ikuspegi dituzte: bizirautea; lehiakortasuna; indibidualismoa, egonkortasunaren etorkizunari begira; statu quo mantentzea eta errepikatzea; eta garapenaren kontzeptuari buruzko ideia unibertsaletan eta globalizatzaileetan oinarritzen dira, izaera neoliberaletakoak diren ideietan, bila-kaera azkarrari egokitzeko zailtasun handienak dituzten gizabanakoen artean bazterkeria handiagoa sortzen duten ideietan, gizartean, ekonomian eta kulturaren gero eta distantzia handiagoak sortzen dituzten ideietan. Era berean, arreta berezia jarri behar da inboluzioaren lerro horiek, gure ikuspegiaren arabera, gizarte eta heziketako guneetan sustatzen diren aldatzeko ekimenak oztopa ez ditzaten.

17. Nerabeekin lan egin behar da **osotasunetik**, beren beharrei erantzuteko; eta hori gazteentzako ekipamenduen sorrera bera da.
18. Ekipamendua dagoen **lurralde eta komunitateko gizarte-errealitatea** eza-gutu behar da.
19. Gure zerbitzua abian jartzeko administrazioak proposatzen duen **enkargua aztertu behar da**, eta horrek esan nahiko du, askotan, proposatutako eska-era berrikustea.
20. **Zerbitzuaren hartzaile** guztiak definitu behar dira, bai erabiltzaile zuzenak di-renak, bai gainerako hartzaileak: familiak, ikastetxeak, gizarte zerbitzuak, eta abar.
21. Gizarte eta heziketako ekipamendua izanik, **aldatzeko, konpentsatzeko eta gizarteratzeko borondatea** oinarri hartu behar da esku-hartzearen diseinua egiteko.
22. **Esku-hartzearen azken helburua nerabeak izango direla** gogoratu behar da; horregatik, ezinbestekoa da helburu hori beti kontuan hartzea, gure esku-har-tzeak nork diseinatu behar duen alde batera utzita.
23. **Beharrak antzeman behar dira**, eta ekipamenduan parte hartzen du(t)en ne-rabe bakoitzaren eta guztien **egoera pertsonala eta** nerabeak inguratzen di-tuen **errealitatea interpretatu behar dira**, profesionalen gaitasun tekniko-e-tatik, ustez nerabeei definizioz dagozkien beharrak zein diren alde aurretik zehaztu gabe.
24. **Zailtasun-egoeretan aldaketak sortu behar dira**; horrek ez du esan nahi jo-kaerak desagertu behar direnik, sintomak baitira.
25. Tresna bakartzat **araudiak betearaztea gainditu behar da**, horrek zaildu egiten baitu askotan harreman eta elkarreraginerako aukerak sortzea, eta aukera ho-riek, oso maiz, nerabeekin zerikusirik ez duen zerbait ez betetzeak sortutako gatazketara mugatzen baitira; bestalde, gatazka horiek ez dute sarritan profe-sionalekin (gurekin) ere zerikusirik. Horretarako, ezarri beharreko arauak par-te hartzen duten nerabeen eta hezitzaileen artean, ados jarrita, erabaki dai-tezke, batzarrak, bilerak eginda, gatazkek konpontzeko espazioetan, e. a.

26. Gizarte eta heziketako espazioan parte hartzen duten nerabeen taldeko nahiz gizabanakoaren zailtasunen ondorio diren **sintomei heltzeko joera gainditu behar da**.
27. **Espazio alternatiboak** sustatu behar dira: alternatiboa izateak ez du soilik esan nahi alternatibak eskaini behar direla.
28. Alternatiboa dena **ezberdin** gisa sustatu behar da, beste espazio batzuetan nahita edo nahi gabe zenbaitetan eskaintzen diren mezu desegoki eta heziketaren aurkakoetan; izan ere, askotan ematen diren heziketa-mezuak norabide bakarrekoak izaten dira, ia beti erruduntasuna bultzatzen dutenak, zuzenketan oinarrituta, eta etorkizuna argudio gisa ematen dutenak, eta ez dira iristen berehalakotasunean –nerabeek era kognitiboan horretan oinarritzen baitute beren bizitza– kokaturik dauden nerabeengana.
29. Alternatiboa dena inguru nagusi gisa aurkezten diren **ereduetan** ere gauzatu behar da. Beharrezkoa da nerabeekiko harremanak egunerokotasunean oinarritzea, era horretan aukera eskaintzen baita nerabeekiko harremanen edukia normalizatzeko harreman zuzena ahalbidetzen duen zeharkakotasunaren bidez, eta hainbat elementuren lanketaren bidez (kulturartekotasuna, baterako heziketakoak, prebentziokoak, eta abar).
30. Aisialdia betetzeko, **edozein motatako ekintza kontsumista edo merkantilista saihestu** behar da.

3 Askatasuna eta erraztasuna ahalbidetzen dituzten guneak, nerabeen partaidetza sustatzen dutenak, sortzea

Partaidetzazko ereduak sortzea ez da lan erraza; baina, proposatzen den dinamikak lan hori erraz dezake. Proposamenaren zailtasunak, askotan, bertikalegiak diren harreman-estiloetan egoten dira.

Era berean, kontuan hartu behar da nerabeek moldatu beharko dutela proposatu zaien egoerara, ez baitzaie oro har galdetzen eta, are gutxiago, erantzuten.

31. **Pixkanaka, parte hartzeko dinamika** abian jarri behar da; horretarako baldintzak sortu behar dira eta, jakina, erantzunak nerabeen proposamenei egokitu; era berean, nerabeen **ardurapean** jarri behar da beren ekipamenduaren dinamika.
32. Parte-hartzaileentzat giro atsegina eta eroso sortu behar da, **komunikazioan eta bizikidetzan** oinarrituta; horiek izan behar dute, gainera, arauak mugatzen dituzten alderdi bakarrak; hau da, saiatu behar da araudia, ahal den neurrian, harreman-inguruaren kanpotik ez ezartzea.
33. **Harremanen bidez elkartzeko** espazio bat izango da, elkarloturaren espazio bat, nerabeen eta beren kideen artean, eta nerabeen eta espazio horretan, heziketan, esku hartzen duten helduen artean.
34. Era berean, espazio **naturala** izan behar du, nerabeen esperientziak, motibazioak eta desioak egunerokotasunetik adierazteko modukoa.

35. Nerabeak bizi diren **espazio irekienen**–kalearen– **luzapen** gisa ulertu behar da.
36. **Topaketa-espazioa** espazio **malgua** da, inguratzailea eta ekipamenduaren eskaintza guztien eragilea.
37. **Parte hartzeko formulak** zehaztu behar dira, espazio hori denborarekin normalizatua eta egituratua izan dadin, eta bertan parte hartzen duten nerabe guztien eta bakoitzaren kezak jaso daitezen (Bilerak egiteko deia egitea, lantaldeak, eginkizun zehatzak betetzeko batzordeak, bai ekintzak programatzeko, bai espazioan bertan egunerokotasunetik sortzen diren gatazkak eta zailtasunak konpontzeko).
38. **Ekintzak** prozesuan ari diren gizabanakoen **eraikuntza pertsonalean laguntzen duten tresnak eta baliabide** moduan ulertu behar dira.
39. Ekipamenduaren Ekintza eta Sustapen espaziotik garatzen diren **ekintzek** zerikusi zuzena izan behar dute **nerabeen proposamenekin**.
40. **Arauk** parte hartzen duten **nerabeen erantzukizunean** oinarrituko dira, eta parte-hartzaile guztiek eta bakoitzak onartuko dituzten elkarbizitzarako inguruak sortuko dira.

4 Arreta berariaz heziketakoa izatea eta, beraz, etengabea, egonkorra eta zuzenekoa, eraikuntza pertsonalean aurrerapena eta nerabeen garapen soziala ekartzen dituen

Zerbitzuaren helburua da parte hartzen duten nerabeen beharrei erantzutea; hau da, nerabeen zailtasunei erantzutea. Hori gauzatuko da espero den alaketan, alegia: hasierako errealitate eskasaren ordez errealitate hobea sortu behar da.

Kideen artean sortzen den elkarlotura, eta espazioa bera (jolasak, liburuak eta aldizkariak, ekintzak, eta abar), funtsezko elementuak dira, ekipamenduaren heziketa-educia oinarritzko eta funtsezko eran osatzen dutenak.

41. Nerabeak garatu daitezten, beren **trebetasunak** garatzen lagundu behar ditugu, eta beren eraikuntza pertsonala lortzeko ekarpenak eman behar ditugu, zailtasuna edozein dela ere, gizabanakoaren potentzialtasunetan oinarrituta, eta ez hainbeste gizabanakoaren zailtasun eta gabezietan oinarrituta, nerabeengana hurbiltzen den **gaitasun-eredutik** abiatuta.
42. Ulertu behar da nerabeen zailtasunak direla nerabeei beren **garapen eta eraikuntza pertsonala** oztopatzen diena egungo gizarte eta heziketako inguruan; era berean, zailtasun horiek nerabearen **egokitzapen eta partaidetza maila** oztopatzen dute, nerabea mugitzen den inguruneetan.

43. **Hautzarotik heziketa-ibilbideak** eratzen lagundu behar dugu; hau da, lagundu behar dugu, alderdi ez formalean oinarrituta, heziketa-egiturak eratzen, hezkuntza prozesuetan laguntzen dutenak eta etengabeko eskaintza normalizatu bilakatzen direnak.
44. Era horretan, ibilbide bat eratu behar da, eta bertan, gizarte eta heziketako espazioa **erreferente** bilakatuko da **nerabeen garapen pertsonala eta soziala lortzeko**; era berean, nerabeen desioak eta motibazioak sustatzeko eta gauzatzeko espazioa izango da, eta ahalbidetuko du **zailtasunak gainditzea eta, askotan, beste ingurune batzuetako gabeziak konpentsatzea**.
45. Espazio horietan, **nerabeen eta helduen arteko elkarlotura** saihestezina izango da, eta elkarlotura hori nerabe guztiekin eta bakoitzarekin **etengabea, iraunkorra eta egonkorra** izango da, heziketan bere ondorioa izango duena.
46. **Heziketako elkarrekintza** izango da, nerabe bakoitza eta guztiak barnean hartzen dituen aipatutako espazioan.
47. Elkarrekintza hori kokatu behar da **parte hartzen duten nerabe guztiengan eta bakoitzarengan** ematen den **prozesu konplexu, bakar eta bereizian**.
48. Ardura duten helduek, era berean, espazioa **dinamizatzeko mekanismoak** aktibatuko dituzte.
49. Hezitzaileak eskaintzen duen **arretazuzena, presentziala eta prozesuala** izango da, eta horregatik ulertu behar da figura horrek elkarrekintza pertsonala eta etengabea izango duela bere esku-hartzearen helburu diren pertsonekin.
50. **Eskaintza jarraitua izango da**, hau da, eskaintzan oinarrituta nerabeek ekipamenduan, ekipamenduaren garapenean, eta bertan garatuko diren ekin-tzetan **partaidetza egonkorra** izatea erdiestera bideratuko da eskaintza.
51. Heziketako laguntza eraikiko da **hezitzailearen prestasunean eta hezi nahi denaren onarpenean** oinarrituta.
52. **Eskaintza** esku-hartzearen helburu diren **nerabeen arabera** mugatua izango da eta proposatuko da.

53. **Nerabeak gizabanako bereziak** direla kontuan hartu behar da; hau da, ez dago nerabetasunik, nerabeak baizik, egoera pertsonalek, familiarrek, girokoek, kulturakoek eta, azken batean, bizitzakoek pertsonak osatzen dituzte une bakoitzean eta leku bakoitzean, eta esku hartzeak balio behar du pertsona bakoitzari emandako erantzun gisa eta zailtasunak gainditzeko ekarpen gisa.
54. **Moldatzeko** eta eraikuntza pertsonala osatzeko **zailtasun handienak** dituztenek esku hartzeko eredu estandarraren egokitzapen bat izan beharko du te norbanakoari zuzenduta, eta **kontuan hartu beharko da berariaz** ekipamenduaren **plangintzan**, orientazioetan eta esku-hartzearen diseinuan.
55. Nerabeak ekipamendura **era boluntarioan joatea optimizatu** behar da, eta nerabeen prestasun eran ulertu behar da.

5 Heziketa-harremana gizarte eta heziketako esku-hartzean funtsezko tresna gisa erabiltzea

Helduekiko elkarlotura eta helduak heziketako erreferentzetat hartzea funtsezko elementua da esku-hartzea garatzeko. Nerabeen garapenean laguntzen duena eta heziketako harremanaren inguruan kokaturik ez dagoena, heziketaren barruan egonda ere, zoriaren baitan egongo da.

Bestalde, oinarrian kontrola eta zuzenketa elementuak soilik dituen harreman batek harreman desorekatua sortzen du, gatazkan oinarrituta, heziketako esku-hartze egokirik ahalbidetzen ez duena; harreman mota hori nerabeengandik urrun dago, eta zerbitzuaren helburua lortzeko beharrezkoa den konpromisotik urrun.

56. **Heziketa-harremana** ikasitako **trebetasun tekniko eta profesionalak** gauzatzearekin identifikatzen da, eta hezitzaileak esku hartzean landu eta sustatu behar ditu trebetasun horiek bi pertsonen arteko elkarrekintzan oinarrituta, alegia hezitzaile baten eta ikasle baten arteko elkarrekintzan.
57. Heziketa-egitekoa nerabeen heziketako (eta bizitzako) prozesuetan **laguntzea** eta lortu nahi diren aldaketak mamitzean **eragina izatea** da.
58. Heziketa-harremanaren oinarria heldua nerabearen erreferentzia positiboa izatea da, eta horretarako beharrezkoak dira **gertutasun fisikoa nahiz konpromiso pertsonala**.
59. Hezitzaileak **prestasun osoa** izan behar du **espazioak, denbora, jolasak, elkarriketak, eta abar partekatzeko orduan**, etengabe eta egunero; era ho-

rretan lortu nahi baita nerabearen bizitzako paisaiaren barruan egotea.

60. Horrela bakarrik izan liteke hezitzailea nerabeek hautatua beren prozesuan laguntzeko; jarraitutasun eta iraunkortasunean oinarrituta beste maila bat erdietsi ahal izango da, **eragintza** alegia, nerabeen prozesuan “eragiteko gaitasun” eran ulertuta.
61. Heziketakoa izan dadin, harremanak izan behar duen baldintza bakarra **lanbideak jartzen duen distantzia** izango da, inoiz ez gure lanaren subjektu diren nerabeen balioespena, justifikazioa edo judizioa.
62. Nerabeari buruzko ikuspegia zehaztu behar da **gaur egun den horretan oinarrituta**, ez etorkizunean izango den helduan oinarrituta.
63. Nerabearen bizitza eta egoera pertsonala **guztiz errespetatu** behar da.
64. Nolanahi ere, ekipamendua optimizatu behar da eskaintzen dituen abantailak eta erabiltzean parte **hartzzaileen borondatea** norainokoa den kontuan hartuta. Nerabeak ekipamendura joatea nerabeek parte hartzean duten interesaren baitan dago; horretaz baliatu behar dugu eraikuntza pertsonala sustatzeko, nerabeen eta hezitzaileen arteko elkarrekintzan, nerabeen eta beren kidekoen arteko elkarrekintzan eta nerabeen eta ekipamenduan garatu beharreko ekintzen arteko elkarrekintzan oinarrituta.

6 Nerabeekin heziketako prozesuak aktibatzea, gizarte eta heziketako esku-hartzea eratzeko

Ikaskuntzan oinarritutako garapen kognitiboa ez dago gure helburu nagusien artean, ezta araudietan oinarritutako garapen moralara ere; bai, ordea, garapen kognitiboa zein moralara, erreferentziazko helduekiko, kidekoekiko eta inguru orokor gisa heziketaren espazioarekiko elkarrekintzan eta garapen pertsonalean oinarrituta.

Helburua ez da gure lanaren subjektu diren nerabeentzat psikopedagogiako orokortasunak ezartzea orientatzaile izan daitezen, baizik eta heziketa-prozesuak abian jartzea, garapen pertsonala lortu ahal izateko.

65. Heziketa-prozesuaren bi dimentsio kontuan hartu behar dira, hau da **subjektuaren heziketa-prozesua eta gure esku-hartzearen prozesua**, subjektuaren heziketa-prozesuaren zati bat baino ez dena.
66. Horrela bada, prozesua **abiagunearen** baitan egongo da beti, hau da, nerabea esku-hartzearen hasieran dagoen “momentuaren” baitan.
67. **Heziketa-prozesuak** aktibatu behar dira esku-hartzea garatzeko lan-ingurune gisa, proposatutako helburuak lortzearren.
68. Hortaz, argi dago prozesuak **norbanakoari egokitua** izan behar duela, nerabe bakoitza bakarra baita, ezberdina, besteak ez bezalakoa, bizitzaren faktore-alderdiek, gaur egun den pertsona izatera bultzatzen dutenek, zehazturik; eta hori **ulertzea** ezinbestekoa da, eta halaber gure nerabeen bizi erritmoak, motibazioak, desioak, beldurrak, ekintzak, jokaerak, eta abar errespetatzea.

69. Zerbait norbanakoari egokitzeak esan nahi du, baita ere, nerabeek dituzten **trebetasunak neurtzea eta aztertzea**. Gure esku-hartzearen subjektu diren pertsonei “eman” dezaketena bakarrik “eskatuko diegu”; ezin dugu igarri, orokortasunean oinarrituta, zein diren adin bakoitzarekin eta nerabezaroa-rekin batera agertzen diren gaitasun eta behar kognitibo nahiz moralak.
70. Beraz, prozesuak aktibatzea **aldaketak ahalbidetzea** da eta, era horretan bakarrik, zailtasunak gainditzea (beharrei erantzutea).
71. Ikuspegi hori kontuan izanda, **kaltetuen dauden nerabeekin esku-hartze egokia sustatuko da**.

7 Nerabeen ardura duten gizarte eta heziketako eragileen arteko diziplinartekotasunean sakontzea, eta horretarako koordinatzeko sistema iraunkorrak ezartzea

Komunitatearen eta horko kideen beharrei erantzutea, zailtasunei heltzea eta gure zerbitzura iritsi ahal izatea egitate izan behar dira, eta egitate horrek agintzen zaigun egiteko publiko eta soziala betearazi behar digu. Sistema asko daude beren hartzailen artean nerabeak dituztenak, eta beste hainbat nerabeen taldeari beren ahalegina eskaintzen diotenak eta, talde horren erantzunean dagokienez, emaitzak ezberdinak dira.

Zerbitzuetan, gutxieneko heziketako erantzukizun partekatuaren beharrak eskatzen du eskaintza aldebakarrak baztertu eta ikuspegi osagarriagoa hartzea.

Diziplinarteko ikuspegiak, askotan, zailegia izaten da, sistemetan estiloak eta joerak iraunkorrak direlako eta alde bateko eskaintzak mantentzen direlako; eta bestalde, sarritan, zabuka egiten du esku-hartzearen ikuspegi orokor eta “normalizatu” batetik gizabanakoena eta “klinikoa”, errealitatearen estigmatizatzailea, den beste batera. Nerabeei zuzendutako zerbitzuek oreka bilatu beharko lukete espazio “normalizatuagoak” izatearen eta esku hartzeko programa batzuen gehiegizko zehaztasuna gainditzearen artean.

72. Gizarte eta heziketako ekipamendua nerabeen garapenez **arduratzan diren inguruen arteko bat** da.

73. **Diziplinarteko koordinazioaren prozesuari** apurka-apurka ekin behar zaio; koordinazioa gure eguneroko egitekoen barruan sartu behar dugu eta gure programazioak egitean baliatu behar dugu.
74. Beharrezkoa da beste batzuek egin litzaketen koordinazio-proposamenen aurrean **harbera izatea eta kolaboratzea**.
75. Beharrezkoa da **bestea ezagutzea eta geure burua ezagutzera ematea**, eta sistema bakoitzaren eta profesionalen erritmoak errespetatzea.
76. **Koordinazio-sistema** bat ezarri behar da eta **heziketa-izaerako esku-hartzeak**, gainerako eragileekin batera, norabide baterantz **bideratu** behar dira.
77. Gure ekipamendua eta gure heziketako programa oinarrizko **gizarte zerbitzuetan** ezagutzera ematea funtsezkoa da.
78. Oinarrizkoa da udaletako gizarte zerbitzuetako **ingurune irekiko hezitzaileekin** eta **famili hezitzaileekin** koordinatzea bien arteko **gardentasun eta erabateko konfiantzan** oinarrituta, esku-hartzea partekatzeko eta gizarte zailtasunak dituzten nerabeen eta, zer esanik ez, arrisku egoera izeneko-tik gertu egon daitezkeen nerabeen errealitateetara hurbiltzeko.
79. Nolanahi ere, **norabide eta orientazio bakarra** egon behar da, nerabeek, norbanakoaren zailtasuna kontuan izanda, heziketako prozesu osasuntsuak garatzeko aukera izan dezaten lan egiten duten eragileen artean.
80. **Eskola-sistemak** ere nerabeei eskainitako zerbitzuaren dimentsioa eza-gutu behar du.
81. Ikastetxeetan **oinarrizko solaskideak** bilatu behar ditugu, gure ekipamenduetan parte hartzen duten nerabeen heziketako prozesuetan laguntzeko eta erantzukizun partekatua izateko; era horretan, **zailtasun berezia duten nerabeekin**, baita gainerako nerabeekin ere, **partekatutako jarduketa ildoak** proposatu ahal izango dira (horretan parte har dezakete nerabeen zuzendariak, tutoreak, orientatzaileak, eta baita ikastetxe-ari-ki-tako guraso-elkarteak ere, esku-hartzea guztion ardura eta osokoa izan dadin).

82. Eskolakoa soilik den heziketako egitekoaren jarduera **osagarria** eskaintzeak, era berean, berekin ekar dezake koordinatzea eta lankidetzan aritzea, ikasle- baldintzak hobetu ahal izateko.
83. Ekipamenduetan lanean ari diren taldeek beste sistema batzuekin lan egin behar dute eta erantzukizuna benetan partekatua izan behar da; eta horretan, **administrazioko teknikarien eginkizuna** izango da **topaketa ahalbidez** eta, nolana ere, topaketa optimizatzea maila “makroago” batean sustatzeko.
84. Diziplinartekotasunari ekiteak eskatzen du **zerbitzu-sistemen artean dauden “oztopoak” desegitea**, “goitik”, hau da administraziotik.
85. Gakoa, beraz, **informazioa partekatzean eta helburuak eta esku-hartzeak bateratzean** datza eta, beste alde batetik, zerbitzu bakoitzaren **alderdi komunitarioen sustatzean**, orokorragoak diren ekintza partekatueta oinarrituta, era horretan beste batzuen ekimenak jaso eta, horrela, zerbitzu bakoitzaren lana indartuko delako.

8 Gizarte eta heziketako esku-hartzearen plangintza egitea, parte hartzen duten nerabe guztien eta bakoitzaren beharrei erantzungo zaiela bermatzeko

Zerbitzua plangintza-sistema bat abian jarrita bakarrik egokitu ahal izango da, bere barruan hartu behar dituen beharrei erantzuteko. Sistema ziklikoa eta lineala izango da, eta helburuak eta emaitzak etengabe ebaluatu eta berrikusi beharko dira.

86. Ekipamenduak gizarte eta heziketako programak garatzeko **zer irismen** izan behar duen ondo **hausnartu behar da**.
87. Esku hartzea **zehaztu** behar da ekipamendua kokatuta dagoen lurraldeko gizarte errealitatea kontuan izanda definitu diren **beharren** ikuspegitik.
88. **Lehentasuna eman** behar zaie, ekipamenduaren ezaugarriak zein diren, gizarte eta heziketan esku hartzeko programen bidez erantzutea dagoen beharrei.
89. Gizarte eta heziketan esku hartzeko programak zuzentzen zaizkien **hartzaileak mugatzea**, eta programaren erabiltzaileen eta azken hartzaileen artean bereiztea; eta horretarako kontuan hartu behar da komunitateko ekipamendua izanik komunitatea bera hartzen duela barnean hartzaile gisa.

90. Enkargua egiten duen **administrazioari** ulertu behar zaio; baita, enkargua kontuan izanda, esku-hartzearen **hartzaille** gisa ere, bera baita enkargua egiten duena eta herritarren beharrei emandako erantzuna bideratzen duena.
91. **Helburu posible eta eskuragarriak** definitu behar dira, ekipamenduak bere gehieneko garapenean eta bere edukien aniztasunean dituen aukerak ikusita, betiere lehenetsitako beharrak eta ekipamenduaren erabiltzaileak eta hartzailleak kontuan izanda.
92. **Plangintzan** helburu garbiak sartu behar dira hainbat alderdiren inguruan, alegia kalitatearen hobekuntzaren ikuspegitik, eta ekipamenduan eskasak direlako, era berezian tratatu behar diren alderdien inguruan. Baita ere, **enborreko eta zeharkako elementuei** dagokienez, berariaz garatzeko objektibatu behar diren alderdien inguruan (prebentzioa, zailtasunak dituzten nerabeen partaidetza, generoaren ikuspegia, euskararen erabilera sustatzea).
93. Zuzeneko esku-hartzeari lotuta dauden **helburuak bereiztu behar dira**, ekipamenduaren beraren kudeaketan eragina dutenak esaterako, hau da: taldearen baruko egitura, koordinazioa eta harremanak beste zerbitzu batzuetako eta komunitate batzuetako eragileekin, eta abar.
94. Garatu behar diren **ekintzak** eta ekipamenduko espazioetan dauden edukia **programatu behar dira**, proposatutako helburuak eraginkor bihurtuta.
95. **Esku-hartzearen metodologia, estiloa eta ezaugarriak adostu eta definitu behar dira**, helburuak lortu ahal izateko.
96. Helburuak lortzeko **egitekoak eta ekintzak denboran zehaztu behar dira**, eta garapenerako faseak ezarri.
97. Programazioa garatzeko **espazioak dibertsifikatu** behar dira, eta ekintzak burutzeko espazioak finkatu; era berean, ulertu behar dugu espazio fisikoa ekipamendutik haragokoa izan daitekeela.
98. **Programak garatzeko ardura duten eragileak definitu behar dira**, bai ekipamenduak **berezkoak** dituen giza baliabideak, bai ekipamendutik **kanpokoak** direnak, hau da, ekipamenduaren barruan egon gabe ere, eta koordinazioaren bidez, proposatutako helburuak lortzeko ardura besteekin partekatzen dutenak.

99. Programak garatzeko, **hezitzaileek** ekipamenduan eta programen garapenean **bete behar dituzten egitekoak** zehaztu behar dira; era berean, parte hartzen duten gainerako eragileen egitekoak ere zehaztu behar dira.
100. Programak ekipamenduetan abian jartzeko **koordinazio-eginkizunak** zehaztu behar dira: hezitzaile taldearen koordinazioa, programazioak berrikustea, Administrazioako teknikariek koordinatzea, beste eragile batzuekin koordinatzea.

Sarreran jadanik aipatu dugun bezala, hemen azaldu dira nerabeen ekipamenduetan garatzen lagun dezaketen proposamenak, betiere hurbiltasunaren eta lurraldetasunaren printzipioen ikuspegitik, eta 12 urtetik 17 urtera bitarteko parte-hartzaileak kontuan izanda.

Argi dago dokumentuaren azken helburua hausnarketarako erraztasuna ematea eta gizarte eta heziketako espazioak hobeto garatzea sustatzea besterik ez dela, nerabeen beharrei erantzun ahal izateko, uste dugulako ekipamenduen edukietan aniztasun handiagoa egoteak arretarako zerbitzuaren barruan dauden ekipamendu horien kalitatera hobekuntza ekarriko lukeela.

Hezitzailearen figura funtsezkoa da prozesu horretan; horregatik gizarte eta heziketan esku hartzeko programak ezartzeak eta Gizarte Heziketako metodologia, tresnak eta teknikak optimizatzeak bat egin behar dute nerabeei zuzendutako gizarte eta heziketako edozein zerbitzuren azken helburua lortzearekin.

Era berean, komunitatearen alderdia indartzea landu beharreko alderdia da, arretarako zerbitzuek benetako diziplinartekotasuna izan dezaten, eta aldi berean honako ideia hau indartzen du: guztion erantzukizuna da haur eta nerabeekin heziketa-prozesuak garatzea.

Argi dago egindako proposamen batzuk oinarritzekoak direla, eta jadanik gauzatzen ari direla nerabeei zuzendutako ekipamenduetan; baina, era berean, beste batzuekin hasi eta horiek gauzatu baino lehen, hausnarketa egin behar da. Gauzak horrela, kasu bakoitzean beharrezkoa da izaera estrategikoko plangintza-sistema bat ezartzea.

Dokumentua irakurritakoan ikus daitekeenez, hemen aurkezten diren alderdiak ugari dira, eta ia elementu guztiak landu behar dira esku-hartzea garatzeko; horregatik, badakigu kasu askotan proposamen batzuk azaletik baizik ez direla ikusten, gehiago sakontzea beharko luketen arren; eta bestalde, ulertzen dugu hau ez dela formatu egokia adierazitako ideiak luzeago azaltzeko.

Egin ditugun hausnarketak nerabeentzako ekipamenduetako lan-taldeei, horien euskarri diren udal teknikariei eta kudeatzen dituzten erakundeei jakinarazteak ahalbidetuko luke aipatutako ekipamenduen kalitatea hobetzea, eta horrez gain proposamenak ekipamendu bakoitzaren errealitateari eta azken beharrei egokitu eta horien arabera doituko lirateke.

